

MENDATA BERTATIK IKUSITA

Galarregiko Bizkaiko begiratokian automobila unetxu baten bazterturik, sarri egon gara handik ikusten dan inguruaren ederra miresten. Mendata eta beste herri batzuk agertzen jakuz begiradapean, zein zein dan ondo bereizten ez dirala, urruntasunak eraginiko multzo zehaztu bako politean. Handik eder ikusten bada, ez gitxiago bertatik.

Irailaren 9an herritxu horretan izan ginan. Egitarau betea eta erakargarria euken egun horretarako: ibilaldi neurtua eta *Bitoriano Gandiaga eta Mendata* izeneko liburuaren aurkezpena. Herria bera, auzoak, baserriak itxura barriturik, ondo zaindurik, abegitsu. Baina ikusi baten gustagarri egiten dan lila horren gainetik, barruko jatortasuna igarri neutsan. Mendi artean galdurik, bazterturik geratu nahi ez dauan herriaren kementa, bizigurea. Herritarrak batzen eta kanpokoak erakartendakian herritxuaren jokaera txalogarria. Mendizaletasuna eta kultura alkarri eskua emonda ikusi nituan. Goizerik, 8etan hasita, ibilaldi neurtua euken herriko lurren mugarrietan zehar. 39 km ziran guztiz; 7-9 orduko ibilbidea. Kirola eginaz herria ezagutzea zan helburua. Izan be, oinez ibiliaz ezagutzen dira bazterrak ondoen. Gainera, lurra zapaltzeak haregazko hartu-emona esan nahi dau. Hartu-emon hau era askotakoa izan leiteke bakotxaren arabera; ez dabe ikuspegi bera izango kirolari batek, zientzialari batek edo olerkari batek. Dana dala, beti sortuko da pertsonaren eta lurraren artean halako edo holako hartu-emon...

Herritarrak batzeko eta kanpokoak erakarteko ekinbidea aitatu dogu lehentxuago. Herriko pertsona goragarriak, idazleak, olerkariak omentzeko ahalegina be erakutsi dau. Aurten era-erara etorri da *Bitoriano Gandiaga eta Mendata* liburua. Ondo eratutako hiru atal dituan argitalpen atsegina: lehenengo zatian Mendataren ezaugarri geografiko, etnografiko eta folklorikoak aztertzen dira; bigarrenean, Bitoriano Gandiaga agertzen da hamaika idazleren ikuspegitik; eta hirugarrenean, Mendatako poetaren hainbat alderdi lantzen dira irudietan.

Mendatako historia

Izenburu nagusi honen barruan, herriaren zertzelada historiko eta geografikoekin batera, ohiturak, jaiak, ahozko ondarea, baserri-bizitza, herriko baserrien ezaugarriak etab. sartzen dira. Erakusgarritzat testu xume bat hautatu dot, euskerari jago-kona dalako:

“Bai Urdaibai eta bai Mendatako euskeraren jatortasuna eta aberastasuna oraindik nabiko ondo gordetzen zaigu, beti ere hobeto Mendata bezalako nekazal guneetan. Badakigu, dena den, azkenengo urteetan baserria asko aldatu dela, hala eta guztiz ere baserri eremuak obitura ugari gorde ditu, eta horrekin batera euskera maila; baina, ezin ukatu belaunaldiz belaunaldi beste gauza asko gelditu dela bidean.

Baserriak, hizkuntza, historia eta azken baten, kulturaren transmisore eta gordetze lanak egin ditu. Hurrengo argazkian Orbelaun baserriko sutondoa jarri da. Zergatik? Itaunduko du-zue askok eta askok. Erantzuna oso erraza da: lehen sutondoa-aren inguruan biltzen zen familia, jatekoa hor prestatzen zen, neguan kanpoan lanik ez zegoenean ere, arto zuritzen, indaba garantzen... familiak egonaldi asko egiten zuen. Honekin batera, berbaldi eta berriketa ugari ere bai eta honi esker belaunaldiz belaunaldi, obitura asko heldu zaizkigu, beste era batera sekula gordeko ez zirenak. Idatzizkoaren faltan, ahozko patrimonioa ondo baino hobeto zaindu zaigu horri esker”.

Gorde diran hiru eliz kanta ageri dira liburuan pentagrama eta guzti: "Isidro Deunarena", "Mikel Deunarena" eta "Albizko Madalenarena", garai baten Mendatako maisu izan zan Emilio Pradera Mallabiko semeak eginak hirurak, 1949an, 1950ean eta 2001ean hurrenez hurren. Kanta zaharretatik, "Abendu kanta, Marijesiak" izenez datoz bederatzi bat ahapaldi. Mendatarrak erabilten dituen doinu eta letrak apartekoak dirala dino libururak; ez daukela antz handirik Gernika eta inguruetan erabilten diranekin. Hona gorde diran ahapaldiak:

ABENDU KANTA, MARIJESIAK

*Abendu santu honetan
Kristoren jaiotzian
Kontentuaren alde
Guztiok poz gaitian.
Maria, Jose; Jose, Maria.*

*Hogeta laugarrena
Dogu abenduan
Geuk gura genduen
Jaretxi genduan
Maria, ...*

*San Jose ta Maria
Eskale txiro bi
Ostatuaren bila
Zirian ibili
Maria, ...*

*Leibotik eutsen
Gizonak erantzun
Gabeko ordu honetan
Zer dakazue hemen?
Maria, ...*

*Birjina garbi bat dakart
Nirekin batian
Dabela Jesus ona
Beraren sabelian
Maria, ...*

*Hortxe beko etxian
Uriaren azkenian
Abereak eta baño
Ez dira sartzen bertan
Maria, ...*

*San Josek esan eban:
Goazen bertara
Jainkoa dan lekuan
Ez da ezer falta
Maria, ...*

*Gabeko hamabiak
Jo daben orduan
Gure Salbagilea
Jaio da munduan
Maria, ...*

Astoak arrantzia
Idiak arnasia
Halan berotzen eben
Jaio dan Infantia
 Maria, ...

Bitoriano Gandiaga gogoan

Hamaika idazleren ekarpenaz osotua da liburuaren bigarren atala. Mendatako olerkariaren irudia moldatu eta eregi nahi izan dabe idazleok, nor bere ikuspegitik. Batzuk, haregaz batera bizi izandako hainbat esperientzia ekarri ditue irakurleen aurrera: *Bitorianogaz egun bat* (Xabier Amuriza); *Paraboletan hitz egiten eban gizona* (Gontzal Mendibil); *Bitoriano Gandiagaren oroitzapenez* (Juan San Martin). Beste batzuk, haren bizitzaren eta lanaren zertzeladarik nagusienak azpimarratu nahi izan ditue: *Orbelaungo txoriak Orbelaunera nahi* (Iñaki Sarriugarte); *Bitoriano Gandiaga: Mendebaldetik berberta zabalduz* (Ricardo Badiola); *Orbelaungo landarea Arantzazun zubaitz* (Jose antonio Arana Martija). Haren poesiaren ortuan hara eta hona ibili dira hiru edo lau, erleen antzera, zer dastatuko; ortu osoan zehar nahiz, ustez, sailik jorie-nean: *Mendata eta Arantzazu* (Juan Mari Lekuona); *Orbelaungo txoriak Orbelaunera nahi* (Iñaki Sarriugarte); *Gandiagaren "Elorri" harago doa* (Juan Luis Goikoetxea); *Hantxe aurkitu neban* (Luis Baraiazarra). Josemari Satrustegiren eta Jean-Louis Davanten ekarpenak azkenerako itxi nahi izan ditut, pixka bat bereziak diralako. Harek, olerki bat eta hitz lauzko iruzkin txiki bat eskeintzen deutzaz Mendatako olerkariari: *Bitoriano Gandiaga zenari*; honek, *Gandi: Gandbi* izenburuaz, hitz-joko honetatik abiada hartuaz, Gandiagarengan ikusi izan dauan alde bat, kristau-budismoaren antzekoa, agertu nahi izan deusku:

Ene ustez, kristau erlisoan badaude bi alderdi, teilatu batean bezala bi eskualde, bi joera eta isuri: bata dinamikoa, er-

nea, beti aitzina joailea, konkistatzailea, hala nola Ameriken kolonizazioan ikusi zena, onerako eta txarrerako; bestea lasaia, baketsua, amultsua, hots burrunba, zalaparta, ttipikeria eta ondasunetatik askatua, budismoaren itxurakoa.

(...) Hara beraz ene Gandi gandbitiarra, urteek ere horretaratua, fedea lagun, Arantzazuko mendi zoragarrian.

Haren olerkiez ohar bi eginaz amaitzen dau idazle zuberotarrak. *Elorri* eta *Uda Batez Madrilen* bakarrik ezagutzen dituala dinosku. Aiko-maikoetan ibili barik, argi eta garbi emoten deusku batuz eta besteaz dauan eritxia: *Elorri* oso atsegin dau; baina *Uda Batez Madrilen* izenekoan Gandiaga lekuz kanpo, behartuta legez ikusten dau:

Bai, txoria zuhaitzean bezala ikusten eta entzuten dut Gandiaga bizkaitar poeta Arantzazuko maldetan, Madrilgo geometria hotzetik urrun.

Galarregiko begiratokitik ikusten neban herritxua, Mendata, bertatik ikusi ahal izan dot oraingoan; era bitara, ikusi be: berez kokatuta dagoan era naturalean eta liburu txukun baten inprimaturik. Biak zein baino zein gogokoago izan ditut.

Luis Baraiazarra